



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

ZALDIBIAKO UDALAREN OHARRA 2021-03-29

Azken egun hauetan hasitako kasuen gorakadari jarraituz dei ugari jaso ditugu Udalean Covid-19aren probetan positibo eman duten herritarren eskutik. Hala, zerrenda luzatzen doa eta gaurko buletinean argitaratu dira azken hiru egunetako datuak. Ostiralean 11, larunbatean 23 eta igandean 8 izan dira guztira.

Gure artean dabilkigun koronabirus aldaera hau oso azkar hedatzen dela erakutsi digu egun gutxitako bat-bateko gorakadak. Orain arteko beste aldaerak baino askoz kutsakorragoa da, beraz prebentzio neurriak indartzea eta sintomei adi egotea dagokigu datozen egunetan zabalpena gelditzeko.

Asko dira oraindik ere gertuko harremana izategatik frogak egiten dabiltzan herritarrak, osasun zerbitzuekin elkarlanean. Gure artean hain azkar hedatzen ari den olatua gelditzeko behar-beharrezkoa dugu herritarren kolaborazioa, gertuko izan edota edozein Covid-sintoma sumatzean, bakartu eta ohiko arreta telefonoetara deitzea:

Ordiziako Osasun Zentroa: 943 00 76 35
24 orduko arreta eskaintzen duen telefonoa: 900 20 30 50

Ostiraletik Osasun Sailera deika ari da Udala eta momentuz Osasun Sailak ez du herri mailako neurri berezirik proposatu, gure herriko egoerari jarraipena egiten ari omen direla erantzun digute eta asteazkenean *bilera telematiko* bat dugu Osasun sailburuarekin inzidentzia-tasa altuena duten beste udal batzuekin batera.

Herri hauetan, jakingo duzuen, LABI batzordearen erabakiz eta gaurtik aurrera neurri berriak ditugu indarrean: **herria itxita dago perimetralki**, mugakide diren herrietara soilik erosketak egitera edo aire libreko kirola egitera joan gaitzke. Esan daiteke gutxienez datozen 15 egunetan mantenduko direla neurri hauek.

Beraz, osagai guzti hauekin eta herritar bakoitzaren ardura pertsonal eta kolektiboa gehituz, gaitzaren transmisioa etetea lortu behar dugu, hori da egunetako gure herri erronka.

Udaletik ere datozen 15 egunetarako programatuta zeuden ekintzak atzeratu egingo dira (haurrentzako ziren gehienak) eta ez da bestelako jarduerarik egiteko udal-baimenik emango epealdi honetan.

Era berean, positibo eman duten herritarrak laguntzen jarraituko dugu ahal dugun neurrian, herritar asko ere horretan ari zarete dagoeneko, eta berrogeialdian daudenen (bereziki haurren) egonaldia arintzeko bideak lantzen ere segituko dugu.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

Momentuz gaitzaren eremutik salbu, baina egun hauek herrian itxita igaro behar ditugunontzat, opor egunak izango dira askorentzat gainera, honakoa gogorarazten dizuegu: gure herriak aukera ugari eskaintzen ditu eta prebentzio neurriak zorrotzuz, aire libreko jarduerak egitea lehenetsi dezagun.

Kontuan izan birusaren kutsagarritasuna oso altua dela. Hortxe dugu beraz erronka, kate hau luzatzea saihestu behar dugu lehenbailehen denon artean.

UDALEKO INFORMAZIOA WHATXAP BIDEZ JASOTZEKO idatzi mezu bat 680 795 473 telefonora INFORMAZIOA hitzarekin.

943 88 03 57

Covid-19an positibo eman baduzu DEITU UDALERA

LEHENGAI eta PREMIAZKO DIREN PRODUKTUAK ETXERAINO.

Koronabirus gaitza hartu duen herritar orok edo arisku taldean dagoen edonork eskatu dezake. Janaria, farmaziako osasun botikak, higienarako produktuak, ...Inori ezer ez falta izatea da helburua.

NOLA FUNTZIONATZEN DU:

1. Herritarrak udalean jakinarazten du berrogeialdia bete behar duela.
2. Behar dituen produktuak eskatzen ditu udalean.
3. Udalak, produktu hauen eskaera luzatzen dio dagokion herriko komertzioari.
4. Hurrengo egunean, udal langileek produktu hauek dendetatik jaso eta etxeraino eramango dizkio eskatu duenari.
5. Produktuen ordainketa Zaldibiako Udalak egingo die komertzioei. Erosketa etxean jaso duen herritararekin adostutako moduan, kontutik kobratuko dio udalak egindako erosketaren gastua.

KUTSATUTAKO HONDAKINAK ETXEKO ATEAN JASOKO DITUGU

Koronabirusa hartu duen herritar oren hondakinak modu berezitu batean tratatzea beharrezkoa da. Horregatik dagokion segurtasun eta higiene neurriak bermatuz jaso eta kudeatzen dituzte herritar gaixoen hondakinak udal langileek.

NOLA FUNTZIONATZEN DU:

1. Herritarrak Udalean jakinarazten du bere positiboa.
2. Une horretatik aurrera herritar honen hondakin guztiak aparte bildu behar dira etxean. Hondakin guztiak poltsa berean ondo itxita gordeko dira.
3. Udal langileek bere etxeko atetik jasoko dituzte hondakinak. Adostutako egunean, hondakin ontzi bat ate aurrean utzi eta abisatutakoan, etxeokak bertan sartu beharko ditu hondakin poltsak.
4. Udal langileek aparteko edukiontzi batean pilatuko dituzte hondakin hauek Sasietak dagokion jasoketa berezitua eta desinfekzioa egin arte.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus